

Zinetika jaialdiak 23 film emango ditu Iruñean, Donostian eta Bilbon

Urriaren 22tik 31ra egingo dute • Tailerrak, performanceak eta eskola magistralak ere izango dira

Ane Eslava Iruñea

Zinetika jaialdiak dantzaren, ikus-entzunezko artearen, zinemaren, gorputzaren eta teknologiaren arteko harremanak aztertzea du helburu, eta hibridazio hori oinarri duten proposamenak biltzen ditu. Aurtengoa seigarren aldia du, eta larunbatetik hilaren 31ra bitarte egingo dute, Iruñean, Donostian eta Bilbon. Jaialdiaren atal nagusia filmak dira, eta aurtun 23 programatu dituzte, hiru sailetan: Sail Ofiziala, Open Screen eta Zinetiks. Programazioa osatzeko, zikloan jaialdi topaketa bat, hiru eskola magistral, bi performance, instalazio bat, tailer bat eta zenbait proiektio izango dira. Atzo aurkeztu zuten egitaraua, Iruñeko Baluarte entzunaretoan.

El Trastero Creativo taldeak antolatzen du Zinetika diziplina anitzeko jaialdia 2016tik, Nicdorekin elkarlanean eta zenbait entitate-rekin laguntzarekin. Dantzarako hurbilketa eta truke artistikoa bultzatzeko sortu zuten, artisten eta diziplinen arteko loturak ezartzeko asmoz. Hala, dantzak, ikus-entzunezko hizkuntzak, gorputzak eta teknologiak bat egiten dute jaialdian, gogoeta sustatzeko.

Aurtun 1.160 pelikula jaso dituzte. Horietatik hautatu dituzten 23 lanak hainbat herrialdetakoak dira, hala nola Argentina, Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Espainia, Brasil, Errusia eta Australia; eta jorrotzen dituzten gaiak ere askotarikoak dira: denboraren joana, errutina, konfinamendua, poesia, arkitektura, esperimentazioa... Gaiez harago, mugimendua eta dantza dira pelikulen oinarri nagusia. Lengoaia horrek ematen dituen aukerak nabarmendu ditu Laida Aldaz jaialdiko zuzendari artistikoak aurkezpenean: «Mugitzen naizenean edo gorputza denean erabiltzen dudana hizkuntza, interpretazioa askeagoa da. Hitzak dauka zerbait oso konkretua, eta mugimenduak ez dauka hori».

Epaimahaia Teresa Moralesek, Sofia Alforjak eta Lorand Janosek osatuko dute. Film onenaren eta zuzendari onenaren sariak emango dituzte, eta aurtun berri-tasun bat izango da: K saria ere



Sofia Alforja, Laida Aldaz eta Ander Gisasola, atzo, Baluarte auditoriumean, Zinetikaren aurkezpenean. INIGO URIZ / FOKU

emango dute. Zinetogram, Goeniz eta Butak21 zineklubek sustatzen dute sari hori, eta irabazten duen pelikula zineklub horietan proiektatuko dute gero.

Lehian diren pelikulak ez ezik, aurtun *DNA 2021* dokumentala ere emango dute. Aitor Ortiz de Felipek zuzendu du lana, eta DNA Nafarroako Dantza Garaikidea-programaren sorkuntza eta ikerketako egonaldiak lotutako testigantzak biltzen ditu.

Beste proposamen batzuk

Jaialdian hiru eskola magistral izango dira: batetik, Lorand Janos Bartzelonako Choreoscope jaialdiko zuzendariak jorrotako du nola gauzatzen den dantzaren sormen prozesua pantailan, «ideiatik hasi eta banaketaraino». Hiru saiotan emango du, Donostian, Bilbon eta Iruñean, hilaren 22an, 27an eta 29an, hurrenez hurren.

Beste bi eskolak telematikoak izango dira: Derek Pedros argazkilaria espazioaren eta mugimenduaren arteko harremanari helduko dio bere saioan, hilaren 24an; Iris Martin Peralta Espainiako zinemaren Italiako jaialdi-

ko zuzendariak, berriz, aztertuko du zer faktore diren garrantzitsuak pelikula bat egin ondoren hura banatzeko. Haren eskola hilaren 26an izango da.

Film onenaren eta zuzendari onenaren sariak ez ezik, aurtun zineklubaren K saria ere emango dute

Zazpi T' erdi taldeak, berriz, *Mugatik korrespondentziak* tailerra eskainiko du. Proiektua mugaren kontzeptutik abiatzen da, «leku intimoagoetara eta pertsonalagoetara iristeko». Horretarako, kontzeptu hori «deseraikitze» helburuz, korrespondentzia zinematografikoak sustatuko dituzte, Nafarroako eta Baionako zenbait neraberen artean. Hilaren 29, 30 eta 31n egingo dituzte saioak, Baluarte auditoriumean.

Horrez gain, Errioxako (Espainia) El Patio konpainiak *A mano* performancea erakutsiko du Baluarte Ganbera aretoan, hilaren 30ean. Lokatzez kontatutako istorio bat da: antolatzaileek azaldu dutenez, ihes egiteko gogo handia duen pertsonaia txiki bat

du protagonista, eta gainerako osagaiak honako hauek dira: «Erakusleho bat eta bertako maizterrak, maitasun istorio bat, porrot txikiez osaturiko istorio bat, torru bat, buztinola txiki bat eta jolasten ari diren lau esku».

Hurrengo egunean, leku berean, Andrea Diaz Reborodo artista plastikoak *M.A.R.* aurkeztuko du. Objektuen antzerkian inspiratutako performance bat da: objektuen manipulazioa aztertzen du, lanerako materialak erabilita egindako koreografia baten bitartez; objektu horiek guztiak bilduko ditu espazio jakin bat eraikitze, etxe bat.

Jaialdiak Adrien M & Claire B konpainiaren *Acqua Alta* instalazioa ere hartuko du. Piezak «galeraz eta bilaketaz, arrotzarekiko eta alteritatearekiko beldurraz eta hori menderatzeko moduz» hitz egiten du. Donostian hilaren 18tik 24ra ikusi ahal izango da; Bilbon 25etik 28ra; eta Iruñean urriaren 29tik azaroaren 4ra.

Gainera, aurtun jaialdien topaketa bat ere egingo dute Zinetika. Labo XL jaialdiarekin sustatu dute, eta ostiral honetan izango da, Donostiako Tabakaleran.